

Koliko nefritikoen sintomak arintzeko, alfa-blokeatzaileak eraginkorrak dira

Alfa-blokeatzaileek ureterolitiasi batek eragindako koliko nefritikoen sintomak arindu ditzakete eta kalkuluaren kanporaketa erraztu.

Jatorrizko erreferentzia

Campschroer T, Zhu Y, Duijvesz D, Grobbee DE, Lock MT. Alpha-blockers as medical expulsive therapy for ureteral stones. Cochrane Database Syst Rev. 2014 Apr 2;(4):CD008509.

Kritikoki aztertutako testuaren egilea

Cristina Agirre Rodríguez
Barne medikuntza-paziente kronikoa
Donostiako Unibertsitate Ospitalea. Donostialdea ESla
cristina.aguirrerodriguez@osakidetza.eus

Galderak (PICO)

- * Pazientea: koliko nefritikoa duen pazientea (sukarrarekin edo gabe).
- * Esku-hartzea: tamsulosina edo beste alfa-blokeatzaile bat erabiltzea.
- * Konparazioa: ohiko tratamendua.
- * Emaiza: minaren hobekuntza, kalkuluaren kanporaketa erraztea, albo-ondorioak.

Bilaketa-estrategia

- *Erabilitako hitzak: Alpha blockers, renal colic.
- *Informazio-iturriak: UpToDate, TripDataBase, EE+, Cochrane Library, Dynamed, University of York, FOM-MBE.

Ikerketa

Saiakuntza klinikoen errebisio sistematikoa da. Bilaketa: saiakuntza klinikoen erregistroa, literatura grisa, Cochrane Library, Medline, EmBase, erreferentzien jarraipena.

Ez dago hizkuntzaren murriztapenik.

Aurkitutako artikulua: 87
Barne hartutako artikuluen kopurua: 32
Pazienteak guztira: 5.864

Balorazio kritikoa

Bi ikertzailek hautatutako artikulua. Bi ikertzaileek datuak atera dituzte. Argitaratze-isuririk ez dago. Heterogeneotasunaren balioztatzea badago. Efektu aleatorioaren ereduarekin emaitzak konbinatzen dituzte. Sentsibilitate-analisia ondo egina dago.

Frogak

Emaitza	RR	NNT
Kalkuluaren kanporatzea	1,48 (1,33 – 1.64)	4 (5- 4)
Efektu kaltegarriak	2,74 (1,38 – 5,45)	9 (7 – 16)

	Kontrol esperimentalak
Kalkulua kanporatzeko denbora (egunak)	2,91 (1,81-4)

Komentarioa

- * Pazientek dauzkaten kalkuluak irudi-teknikaren bidez diagnostikatuta daude eta 10 mm baino txikiagoa dute diametroa.
- * Hidronefrosiak, gernuko infekzioak eta arazo errenoureteralak dituztenak baztertzen dira.
- * Bakarrik tratamendu medikoa neurtzen da (kirurgia edo litotriziarik ez).
- * Medikazio honen erabilerak konplikazioak eta teknika oldarkorrak erabiltzea murriztuko ditu.
- * Efektu kaltegarri gehiago ikusten dira (zorabioa, hipotentsio ortostatikoa, atzeranzko eiakulazioa, palpitazioak, buruko minak, erretinitisa, astenia, azaleko erreakzioak, nekea), baina neurrizkoak direnez, tratamendua ez da bertan behera uzten.
- * Ikerketen jarraipena 4 astekoa izango da (2 astekorik edo astebetekorik ere badago).
- * Alfuzosina izan ezik, alfa-blokeatzaile guztiak eraginkorrak dira, asteko 0,2 eta 0,4 mg-ko dosietan alderik topatu gabe.
- * Ez da alderik sumatzen minaren eskala bisualean. Badirudi zain barneko analgesia gutxiago erabiltzen dela.
- * 32 ikerketa-lanetik bakarrik 7k tratamenduarekikoitsuak ziren sendagileak eta pazienteak deskribatzen dituzte. Beste ikerketa guztietan ez dute deskribatzen puntu hau edo ez dago.